

## MAO ETA BATASUNA

Askotan pentsa izan dut, Mao'k bere eskuetan indar guziak izanda, zergatik ez ote zun txinar idazkerarik aldatzen.

Gaitza eta zailla bait da txinar idazkera.

Ainbeste zirriborro letra bakoitzeko...!

**Bost zailtasun** eta **iru geiegizko** omen ditu idazkera ideografika orrek. Ona iru geiegizko oiek: 1/letra edo izki geiegi; 2/izki oien era geiegizkoak; Mesan ere era askotara esaten dirala.

Bost zailtasunak auek dira: 1/ezagutzen gaitzak; 2/irakurtzen gaitzak; 3/idazten gaitzak; 4/gogoratzten gaitzak; 5/klasifikatzen gaitzak.

Guretzako gure izkuntzetako izki bakoitzak soiñu eta ots bakar bat du; txinatarrentzat, berriz, izki bakoitzak soiñuak ditu asko ta desberdiñ eta idea bakarra, gogaia bakarra...

Izki bakoitzari gogai bakar bat dagokio.

Orretan dago gure eta txinarren arteko alde aundia.

Idazteko-makina batek zer zailtasun ditun ez goaz esatera ere: ogeita bost kiloz goitik pixatzen du txinon idazteko tramankulu batek... Eta ura erabiltzeko bear diran trebetasun eta kemenak...!

Gauzak orrela badira, idazkera ori aldatzea bearezkoa da. Ori edozeiñeri datorkio burura. Mao'ri ere bai. Zergatik ez ote du egiñ, indar guziak bere eskuetan bazitun...?

Korapillo zaarra ori.

Aska gabea, gaiñera.

Kristo-aurreko III'en gizalditik asita zeuden Txina'n zailtasun oiak aska eta arindu nairik... Izki-ugaritasuna **iru millatan** esi nai izan zuten orduko agintariak; baiña, alperrik, basoko perretxikoak bezela ugaltzen bait dira izki berriak... Oraindik-orain (1955 urtean) izan zuten billerak **amar milla** izkiak (idazkera normaletan erabiltzen diranak) **millara** beartzeko...

Korapilloa zertan dagon:

Gure idazkerak belarrietan jotzen gaitu, txinar idazkerak berriz buruan...

Z-o-r-tz-i idazten dedanean izki bakoitzak bere soiñu berezia du: bost soiñu **Zortzi** idazten badet, itz ori euskaldunak bakarrik ulertuko du; baiña, **8** jartzen badet erdaldunak ere ulertuko du, baiña onek ez du **zortzi** esango **ocho** baizik... Bide-zabaletan

ibiltzeko seiñaleetan ere berdin gertatzen da: seiñaleak bakarrik izan da ere, izkuntza bakoitzetan dituzte itz bereziak... Seiñale bakoitzak du bere esatekoa, ikasi egin bear ordea zer esan nai duten... Txina'n izki bakoitza trafiko-seiñale bat da, ta zer esan nai duen ikasi bear. Orrelako izkiak idazkera normaletan erabiltzen diranak **amar milla** dira... Zer zailtasun dakarren orrek berekin...!

Ikasi ezkerero ez dira izkiak bakarrik ikasten izkien esan-naia ere bai, gauzak berez nola diran ere bai... Eta ori bentaja aundia da.

Txina erri oso da zaar eta ugaria. Millaka urteetan idazkerako izkiak **zer-esan-naikoak** erabilli dituzte beti. Baiña, lurralde bakoitzean izki oiek bakoitzak bere erara irakurtzen ditu: orra idazkera bakar bat Txina guzian eta izkera asko desberdiñak... Txina'ri batasuna idazkeratik datorkio. Idazkera ori, ikasi ezkerero, edozeiñ izkuntzetako txinoak ulertzen dute; irakurtzen ikasi bear, ordea... Eta lan orretzek ditu **iru geiegizko** eta **bost zailtasunak**...

Nolatan geiegizko eta zailtasun oiek kendu?

Txinar idazkera gure idazkera biurtuta: soiñu bakoitzari izki bat egokituaz.

Orrek gauza erreza dirudi.

Errezegia.

Txinar izkuntzekin zer egin gero? Bat aukeratu batasuna egiteko, besteak ill.

Baiña... (beti dira baiñiak erabakibear guzietan) orrek izkuntza eta kulturaren aberastasunaren ondarmendia dakar, pobretasuna; batasun guzien aldearantzia pobretasuna bait da. Oiek aurrera eramateko indar eta indarkeriak baditu Mao'k, asmoa berriz 1949-X-10'an artu zuten (Agintaritzara eldu eta amargarren egunerako); baiña oraindik asmo ori aurrera eramateko daude, batasuna egiteko izkera aukeratu bazuten ere... Pekin'go jakintsuen izkera aukeratu zuten Txina guzirako: Mandarin-izkera, alegia. Batasun aundia zuten elburu eta bideak errazak ez baziran ere, eskoletan umeai eta gazteai erakutsi ezkerero... Indarrak eskuetan zituzten, Batasuna gauza guzietan ikurrin eta alaz ere... Zerk galdi arazi du burdia...? Mao'k ogei urte balitu egin zuan batasuna: Txinar Batua... Baiña, Jakinduria urteekin dator (etortzen bada) eta Batasuna lortzeko zer galduko dan begien aurrean eduki bear.

A. ARRINDA